

# Tratamendu periodontal ez-kirurgikoa: praktikak ERANTZUNAK

## ***Egileak:***

Aguirre-Zorzano LA, Estefanía-Fresco R, Fernández-Jiménez A,  
García-De-La-Fuente AM,

OCW-2017

**Ikasleek gai teorikoak ikasi ostean, 6 filma ikusi behar izango dituzte jarduera praktikoak ahal egiteko.**

**Ariketa praktikoak gai teorikoetan eta filmetan oinarrituta daude.**


**Saiatu zaitetz ariketa praktikoak egiten. Erantzuteko arazorik izanez gero, begiratu berriro irakasteko materialari.**

## 1. ARIKETA

a) Hortzoiaren atzera-egitearen neurria hartzeko, zein tresna erabiliko dugu? Eman izena. Deskribatu.


Zunda periodontala da.

Altzaiuzkoa da eta zati aktiboan bi zati beltzez margotuta dago (3 mmzkoak); hórrela, poltsen sakonera eta hortzoiaren atzera-egiteak neurtuko dira arazorik gabe.



b) Hurrengo argazkian zenbat neurtzen du hortzoiaren atzera-egiteak ebakortz lateral horretan masailaldeko alde urrunean?

Hortzoiaren atzera-egiteak 2,5 mm inguru nerutzen du



## 2. ARIKETA.

Filma ikusi eta gero, izendatu hurrengo tresneria eta haien erabilera



### 3. ARIKETA

Ultrasoinuren kokapena zuzena da? Bai, zuzena da. Ultrasoinuaren puntaren angelu-erasoa ia-ia paraleloa izan behar da.

Zein angelu-erasoa erabiliko dugu tartrektomia egiterakoan?

Ultrasoinuaren punta hortzaren kontra 15°-ko angelu-erasoarekin erabiltzen da gehiengoz. Inoiz perpendikularki eta mugitzen da presio barik eta eten gabe, ehunak mina ez hartzeko.

Zertarako erabiliko da? Kalkulu eta bakterio-plaka azpi-gingibala kanporatzeko erabiliko da.


Eman erantzuna, baina beti justifikatua izan behar da.



Begiratu 3. gaiari. Tartrektomia: kalkulu eta plaka azpi-gingibalaren kanporaketa.

## 4. ARIKETA

Izendatu hurrengo tresneria periodontala.



## 5. ARIKETA

Zer egiten ari da profesionalak?

Sustraiaren karrakatzea eta leuntzea

Deskribatu euskarria eta ikuspena nolakoa den



Lapitz modifikatua



Behatzen euskarria

Ikuspén zuzena.

## 6. ARIKETA

Zein eskuilatzeko teknika da? Bass modifikatuaren teknika

Deskribatu pausuak.

- 1.- Hortzoi-ertzaren kontra 45° okertuz.
- 2.- Mugimendu bibrakorra.
- 3.- Arraste- mugimendua eginez, hortzoiaren ertzetik okluso-ertzeraino: errotaziozko mugimendua eginez



Noiz erabiliko da?

- Poltsa periodontalak.
- Periodonto osasuntsua.
- Gingibitisa.



## 7. ARIKETA

**Zein eskuilatzeko teknika da?**

**Stillman modifikatuaren teknika**

**Deskribatu pausuak.**

- 1.- 45° hortzoi txertatuan
- 2.- mugimendu bertikala
- 3.-Errotaziozko mugimendua, hortzoitik oklusaleraino

**Noiz erabiliko da?**

- Periodonto osasuntsua
- Hobiaren atzera-egiteak.



Egileak: Aguirre LA, Estefanía R, Fernández A, García AM,

## 8. ARIKETA

### Deskribatu hortz-arteko hariaren erabilera



Hortzaren oklusalean euskarria hartu .



Ukitze-puntua pasatzeko zerra-mugimendua egin.



Ildo gingibalaren barruan sartu, plaka kanporatzeko.

## 9. ARIKETA

Esan hortzarteko eskuilatxoak noiz erabiltzen den.


- Gune edo espazio zabalak.
- Hortz-arteko gainazal ahurrak
- III motako furkak.

Izendatu hortzetako eskuilatxoaren abantailak.

- Erabilera erraza.
- Tamaina eta itxura ezberdinak.
- Ahurtasun gaingingibalak garbitzeko oso onak.
- Bai hortzen sustraiak, bai inplanteak garbitzeko erabil daitezke:

Begiratu A eta B irudiei eta aukeratu zein irudietan hortzetako eskuilatxoak egokia den eta justifikatu zuen erantzuna


B. Irudiarena egokia da. Guneari hobekien egokitzen zaiona aukeratuko dugulako.



Egileak: Aguirre LA, Estefanía R, Fernández A,  
García AM,

## 10. ARIKETA

Deskribatu tresneriaren aktibazioa zertan datzan.





*Kureta arkatza izango balitz bezala hartuko dugu eta beti hirugarren edo laugarren atzamarren laguntzarekin eta kureta poltsaren barruan sartuko dugu.*

*Kontuan hartu behar dugu; kuretak hortzaren luzetarako ardatzaren kontra jarraituko duela, poltsaren zati sakonenaraino heldu arte.*

*Bertan KURETA AKTIBATU eta alde aktiboa sustraiaren kontra egokitu.*


## 11. ARIKETA

Izendatu kuretaren zatiak eta xafla aktiboaren aldeak.



## 12. ARIKETA

Zein hortzetan eta zein aldeetan erabiltzen dira 1-2 eta 3-4 Gracey kuretak?



**1 - 2:** {  
•Ebakortzen  
•Letagin/betortzen  
*Masail-alderako*

**3 - 4:** {  
•Ebakortzen  
•Letagin/betortzen  
*Mihi-alderako*

## 13. ARIKETA

**Begiratu irudiei eta erantzun hurrengo galdereei:**

***Zein da kuretaren izena?***

***13/14 Gracey kureta da***

***Zein motatakoa?  
Espezifikoa da, bakarrik alde aktibo bakarra du.***


***Noiz erabiltzen da?***

***Atzeko hortzetan (haginetan eta aurreko haginetan, alde urrunean)***



## 14. ARIKETA

Kureta unibertsalak zorrozteko, kuretaren eta zorrozteko harriaren kokapena garrantzitsua da. Esan non kokatzen diren bi elementu.



1



2



3

Kuretaren kirtena:  
11:55

Zorrozteko harria: 12:05




## 15. ARIKETA

SKL egin ostean, 3-4 astetara, aldaketak histopatologikoak eta *klinikoak* gertatuko dira,

Hurrengo eskema begiratu ostean, izendatu aldaketa horiek.

Ikuspuntu histopatologikotik esan zein den aldaketa garrantzitsuena.



### Aldaketa klinikoak

- Zundaketa sakoneraren murriztea,
- Intsertzio-kliniko neurriaren mantendua edo/eta irabaztea,
- Bakterio-Plaka indizearen gutxitzea eta
- Odoljario-indizearen murriztea.

Egileak: Aguirre L.A., Estefanía R., Fernández A., García A.M.


## 15. ARIKETA

SKL egin ostean, 3-4 astetara, aldaketak **histopatologikoak** eta klinikoak gertatuko dira,

Hurrengo eskema begiratu ostean, izendatu aldaketa horiek.

Ikuspuntu histopatologikotik esan zein den aldaketa garrantzitsuen.

Aldaketa histopatologiko garrantzitsuen  
**Lotzeko Epitelio Luzea** sortzea da



Egileak: Aguirre L.A., Estefanía R., Fernández A., García A.M.

## 16. ARIKETA

Euskarriko Terapia Periodontal, tratamendu periodontalaren fase funtsezkoa da, ebidentzia zientifikoaren arabera, ETP berari esker hortzeriaren gehiengoa mantenduko da urtean zehar.

Izendatu, ETPren jarduerak.

### Pazientearen azterketa eta ebaluaketa

Periodontoa (Periodontograma)  
Bakterio-plaka indizea } (10-15 minutu inguru)

### **Tratamendu pertsonalizatua ( pazientearen beharrak kontuan hartuta)**

Informazioa eta motibazioa.  
Aho-higiene argibideak eman. } (5-7 minutu inguru)

Sustraiaren Karrakatzea eta Leuntzea.  
Berreritasunen tratamendua } (45-50 minutu inguru)

## 17. ARIKETA

**Ondorengo hortz-arteko higienerako tresneria izendatu:**



Hortz-haria



Hortz-arteko eskuilatxoak

## 18. ARIKETA



**Hortz-arteko higieniaren inguruan, zein baieztapen dira egiazkoak:**

- a) Hortz-arteko higie ez da beti beharrezkoa.
- b) Hortz-arteko hariarekin zerra mugimendua egin behar da.
- c) Hortz-arteko eskuilatxoekin III motako furkak garbitu ditzakegu.
- d) Hortz-arteko eskuilatxo batekin aho osoa garbi dezakegu.

## 19. ARIKETA



Egileak: Aguirre LA, Estefanía R, Fernández A, García AM,


***Paziente honetan, zein hortz-  
arteko higiene tresna  
erabiliko zenuke? Zergatik?***

Hortz-arteko eskuilatxoak

Hortz-arteko guneak zabalak baitira.

## 20. ARIKETA

Diagrama honetan, Euskarriko Terapia periodontalaren jardueraren denbora antolatu,



### ***ETP-denboraren antolamendua (60 minutu)***

- Azterketa
- Motibazio+AHA
- SKL
- Kokapen Aktiboen tratamendua
- Leunketa, fluor, kontsulta berria eman

Azterketa	10-15 minutu
Motibazio+AHA	5-7 minutu
SKL	30-40 minutu
Kokapen Aktiboen tratamendua	10 minutu
Leunketa, fluorra, kontsulta berria eman	10 minutu